

ASARRE-ITZA BIDEZKOA DANEAN

Gaur gure gazteen artean oso «modan» dago protesta egitea. Agirak egin, arpegi eman edozein ta edozerri. Gure elkarte zibilizatu-tan, alabaña, bi esan-gai oso artuak dauzkate politika-saillean. Ontzat emango dizue aldaketa, naiz bide berrietarako zabalera; baiña bide batez bi esan-gai dituzte beti aotan: «Edozein Indarkeri kondena-garri da» ta «Ordene ezinbestekoa ta deseagarria da».

Ba-dira, izan ere, beste indarkeri «xotillagoak» alegia. Itxuraz pakea dute azalean, baiña bidegabekeria dute mamian.

Orregatik, asarre-agerpen bat ikusten danean, sustraiz aztertu heariko dira, ia artarako aitazten duten arrazoiak agiriko «orden»-oaño indar aundiagoa ote-duan. Aibeste protesta artean, aukera «in bearra da, beraz. Eta ondo ikusi bear da ia bakoitzean aitazten «in eskabideak, konturatu gabe sartu diran oitura ta ezjakinez nausitu diran zenbait egoerak baiño geiago balio ote-duan.

Auetako asarre-giro emakor bat, Estadu Batuen buruan Vietnam' go gudatearen kontra jakki dana izan da. Orrek agirian jarri du, Ipar-Amerikako zurbidearen argala, gerra orren arrazoiabideak asma-tzen; eta Vietnam'go gerratearen sasi-nasketak duan korapillo bel-tza; McCarthy ta bere gazte-alderei eskerrak, erriak garbi jakin du no-lako irristadate egin dituzten bai gerra-saillean eta bai diplomazi-bi-dean, alegia, ikasleak lenengo aldiz jakki dira. Sudafrika arrazakeriz aldentzea ta Estadu Batuei munduko ongi-nala kentzen dion gerra orren bukaera eskatzea.

Beste asarre-itza, oso bidezkoa ala ere, herriagoa izan da ta bildur gera oz ote-duan azken onik izango. El Cabo'ko Unibersidadean agintari amerikarrak. Ortik etorri da Johnson bere agintaritzatik eta agintakeriz pipiak jota degu. Goko jendeak beltz bati, Irakles-Alkirkako bidea itxi egin diote. Gazteak, agindu orren aurka jakki dira.

«Apartheid» burkerak bere egina guzia, beltzen gauza-eza aih-tzen jarri izan du. Zer gerta ditek, beltz batek zuria aña argituan eta gaitasun duala erakutsiko ba-lu? Sudafrika'ko Gobernuaren latsa-galduko ezin adierazi dezake, gazteen eskabidea okerra danik. Bere bidean eta arrazoiari nai dute beren maixuak, naiz ta beltzak izan, onenak izan ditzoten.

Asarre-giro auek indarkeri ta naste aundiak ekarri ditzakete, bai-ña iñor kondenatu baiño lenago, ondo ikusi bear da nori zor zaizkio eta noren erruz sortu diran orrelako nasteak.

DIRUA ETA KULTURA

¡Arrituta nago ikusten zeñen erresponsabilidade es-kaza duten eskritore batzuek!

Bizkaiko eskritore pamatua da bera. Oraindik orain oso liburu dotorea agertu berria da. Euskalerriko gaiak erabiltzen ditu bertan. Ez det esan nai eskritore omen izenik. Ezta ere liburu atera duan argitaldariarena.

Bizkaiko eskritore pamatu onek ez daki euskeraz, eta ontla aitortzen du. Ez dakilla euskeraz. Bere ka-suan beste idazle asko izan omen dira, eta gaur ere bai omen daude Bizkaian. Oen izenak jartzten ditu.

Bañan letu ondo, irakurle. Berdin gertatzen omen da beste Euskalerriko idazle askorekin. Mourlane Mi-chelena ez omen zekien euskeraz. Jose Maria Salave-riarik ere ez. Zubiri pilosopo ospetsuak ez omen daki euskeraz. Samaniego, arabar ipulari pamatu eta Tolo-san emezortzigarren gizadian alkate izan zanak ez omen zekien euskeraz. ¡Nik ere ez omen dakit euskeraz!...

¡Au idatzita gero trankil gelditu da gure bizkaitar eskritore pamatua!

Arrituta nago. Eskritore orrek ez dauka intenzio txarririk. Neri onore aundia egiten didalakoan idatzi du erokeri ori Bizkaiko eskritore orrek.

Berriz ere esango det. Txundituta nagola zeñen erantsupide eskaza duten zenbait eskritorek. Beren bu-ruak deskalifikatu besterik ez dute egiten. Nitzaz ori esateak auxe besterik ezdu esan nai. Idazle orrek nere liburuak ez ditula ezagutzen, ezta azalez ere.

Mourlane Michelena, irundar idazle pamatua Lizar-diren goreslea genduan. Bere azken egumetan euskal po-emu bat idatzen ari zan, Jose Maria Salaverriak euske-

raz bazekien. Zubiri pilosopo sonatuak badaki euske-raz. Manezaundi idazle jatorraren iloba degu Zubiri. Eta erderaz idazteko tankeran igartzten zaiu euskeraz dakilla. Samaniego ipulariak bazekien euskeraz. Gara-gorri pilosopoak dakien edo ez, ez dakit. Baiño, dana dala, ez nintzake atrebituko euskeraz ez dakienik esa-ten, Bizkaiko eskritorea ausarditu dan bezela.

Pio Barojak ba zekien euskeraz. Berak aña euskeraz-ko bertso zaar oso gutxi-ko dituzte. Sail onetan lan arrigarria berea.

Nik berriz, danok dakizuten bezela, ez dakit eus-keraz...

Euskeldun erderazko eskritoreak nabarmen oso agertzen du estiloan bere euskaltzaleatasuna. Idazteko tankera ez da berdina. Ezta urremanik ere. Joskeran igartzten zaiu.

Gai onek beste bide batetik eramango nituke. Ezta ori nere gaurko asmaoa. Beste zedozer esan nai det.

Esan nai nukena auxe besterik ezda. Bizkaitarren-tzat dijoa, edo obeto esateko bilbotarrentzat. Bizkaitar-rrak gure kultura gaietara oso gogoz datoz aizen den-pora auetan. Oso kementsu. Itxura danez diru asko da-karkite gañera. Diru, aparretan ari dirala ezagutzen da.

Dirua oso laguntzaille printzipala degu. Bañan ez nagusiena. Burua bear degu agri aurren-aurrena. Kul-tura gaietan diru asko erabiltzeak gutxi balio du adi-men argia neurri berean ez badegu.

Jose de Arteche

KEZKAK

Yon San Martin'en kezakak

Neronek uste gabea, ia-ia nas-keta aundiak sortu nituan. Bildur da aspaldiko nere adiskide Yon San Martin, Euskaltzaindiaren iren ona lausotuko ote dedan. Ez det orrelako asmorik izan beñiere Garbi ditzagun, beraz, zenbait illun-gune.

LENENGO

Yon San Martin'eko bere esku-titz idikian izendatzen duan nere idaz-lantxoa, ez da oringoa, Joan dan dagonillaren 25'ean agertu ba-da ere, 1966'go agorraren 1'ean idatzi eta bidalia da.

BIGARREN

Argi eta garbi idaztearen alde ateratzen nintzan. Esan nai dana, besteri ulertu arazteko eran idatzi bear dala, alegia. Eta ortaz gañe-ra, txukun idaztearen alde. Izan ere, oso zabar eta zarpa-jario ager-tzen baitgera, idazten deguean.

Geiago esango nuke: Zeruko Ar-gia'n asteroko idazle diran zenbait-ek, biziro garbi eta txukun idaz-ten dute erderaz ari diranean. Ez diegu, ordea, beste oinbeste ardura arkitzen euskal-idazkietan. Eta au-xe zan orduan salatu nai izan nua-na, astetik astera obetu dezagun Zeruko Argia.

IRUGARREN

Nere uestez, naiko garbi zegon, nere jardun guzia Zeruko Argia'ren idaz-lanei buruz egiaña zegola. Sei-zortzi bat errenkada-itx galdu ez

balaitzaizko tartetik, onenean, oker ulertzeko biderik etzuan emango.

LAUGARREN

Yon San Martin'esk jakin det, «Euskera» izeneko idazkaria irer-tzen dala, eta ortez gañera illero-ko agria multikopiaz egiañik eta euskaltzain diranen artean banatzen dala. Egia esan, ez naiz Eus-kaltzaindik; ez det artzen, beraz, illeroko ori eta ez det ezagutzen ere. Nola nindekan orri buruz min-tzatu?

Gañera, pentsatu bear zuan ne-re adiskideak, «Euskera» aldizka-riaren artzalle izan banintz, an ber-tan azalduko nuela nere iritzia. Nola-nal ere, jakingarri gerta zaiz-ki San Martin'ek ematen dituan berriak.

BOSGARREN

Euskera-euskeraz» diodanean, eus-kal-idazkera garbia eskatzen det. Erdal —egunkarieta nerdera— er-dera erabiltzen duten gisara; erdaz-idazkietan beste izkuntzetako ku-tsuri eta joskerarik sartzen ez du-ten antzera; guk ere erabil dezagula euskera-euskera. Utzi dezagula bein betiko «erdal-euskera» nastu edo «euskal-gaitz» deritzaloz ori.

SIXGARREN

Ba-dakit zer esango didaten zen-baitak: «—Euskera txukun eta do-torea erabili, baiña zer ajolazkorik esaten ez bada, ez goazke ifora. Lore-kontu eta txori-kantu asko, oso dotore esanda, baiña gaurko

arazorik arrotzen ez badegu, ez degu asko aurreratuko. eBti ez-jakin eta atzeratu geldituko geraz.

Ondo esana: Ni ere iritzi ortako naiz bete-betean. Erabili ditzagula garrantziko gaiak, sakonak, ajo-lazkoak. Urta ditzagula jakinduri-bide berriak, argitu ditzagula arazo nagusiak, atera dezagula «plazara» gure euskera lotsatia. Aibeste da-go oraindik ete!

Baiña egin dezagula euskeraz. Euskal-idazkera dotore ta abera-tsean ezin badegu ere; euskera opa-ro eta apañean ez balin bada ere, idatzi dezagula txukun. Izan ere, idazleri eskatzen zalon lenengo gauza, auxe bait-da edozein izkunt-zetan: utsumerik gabe ta akatsik gabe idaz dezala.

Aldi ontan askotan aipatu da, Euskeraren batasun arazoa. Ajola aundikoa iruditzen zait. Baiña ba-tasun orrek ez du adierazten, dan-danok berdin itzegin bearko degu-nik. Ez. Bakoitzak dakian bezela itzegingo du, al duan bezela.

Baiña ez da berdin, idaztekoan. Bakoitzak bere etxean itzegiten duan-bezela-bezela idatzi bear ote du? Ez eta ez! Idazten dana, alk-eta geñenengana irixteko idazten da.

Askorentzat idazten dana, tella-tupe bakoitzeko bereizkuntzak baz-tarturik, denentzat ulergarri dan eran egin bear da, noski. Bestalde, irakurle —taldeari zor zaiu zer-bait— zerbañ begirapen: utsume ta akatsak tartean dirala idaztea, ajo-lazkeritaz joko nuke nik.

Esate baterako, Itzaldiak, Izlari bat entzule-taldearen aurrean izke-tan asten danean, mintza ote di-teke lagunartean bezela? Ez. Gora-xeagoko mallatik jotzen du. Orrela gelagok ulertzen diote; gañera, be-girapena agertzen die entzulei.

Baiña ortarako, ikasi egin bear. Euskeraz ondo ikasi ez duana, nere uestez, ez ditek batasun-malla jato-rrera igo. Batasunerako aukeratu diran era eta moldeetan ibilliko da, bai; gelagorik ez, ordea. Idazleok, euskera sustraitik eta sakon ikas-ten ez degun bitartean, ez det ikus-ten batasun-bide jatorrik. Bildur naiz, mami gabeko gabeko gain-azal otz eta illa gertatuko ez ote dan gure Euskera bateratua.

BRATISLAVA'N ENTZUNDAKOAK

Bart bukatu ziran Bratislava'ko al-karrizketak. Berneko politikari da-gokionez, «beren bidea» hautatzeko balmena lortu bide ute txekoslo-bakiarrek; eta Askatasunerako bi-deari ekiteko asmaoa dutela jakina-zari dute Dubcek'ek eta Svoboda'k. Beharrik (Sozialismoaren etorkizuna Belgrado'n eta Praga'n jokatzen bal-ta; ez Mosku'n, ez areago Pekin'en. Ekialdeko bost «ortodoxoak» ez di-ra bigarren Budapest bat egiten au-sartu. Marxismo-leninismoari buruz-ko «heterodoxiak», beraz, gora doaz; eta «ortodoxiak» behera. Hunen on-dorioak ezin larragoak izango dira ondoko urteetan sozialismoarentza-ko; eta ezin itxaropengarriago ager-tzen zaizkigu dagoenetik.

Nola lortu du Dubcek'ek arraka-sta hau? Erantzuna nabarmena bige-da: herriak laguntza osoa eta egi-azkoa eskeini dio. Komunista erre-suma batean bakanka ikusi da hu-rrelakorik: herriak berez eta agiri-argiaran, eta K. A.'k azpitik bultzatu gabe, komunista agintarien alde agertu da.

Cerna'ko eta Bratislava'ko hartu-emanak gertatzen ari ziralarik (hau ere gutxitan ikusia komunista erre-sumetan) herria, garteria bereziki, kalera irten da; eta gogor eta tinki ihardukitzeko eskatu dio Dubcek'i.

Gogor eta tingo egoteko, zertan? Hiru helburu, hiru lelo, izan omen dira nagusi manifestazio horietan: «GORA ASKATASUNA», «GORA TI-TO», eta «GORA GIZATAR-SOZIALISMOA» («socialismo humanita-rio», itzulpena aipatzekotan). Hiru esaera horiek jakinarazi dizkigute hango kasalariek.

Txekoslovakia'ko herriak kaleetan eta enparantzetan oihukatu dituen hiru xede horiek, gutziz kontuan hartzeak dira; Paris'en Malatzen entzun ziranen kideak baitira. Au-rrerazaletasuna, progresismoa, ez al-paldiko iritzietan.

Komunista Alderdiaren diktadura-ren kontra, stalinismoaren kontra, herriaren nahia «gottik» esmatu-be-

harraren kontra, Bratislava'ko gaz-terriak «Gora Askatasuna» esan du. Komunista Alderdiaren planifikazio gogoraren kontra, gottik beherako agindu-nahieren kontra, Alderdi ba-kar baten elizkerlaren kontra, Bratis-lava'ko garteriak «Gora Tito» erantzun du. Hau esanez, Bratisla-va'ko garteriak autjestioa eskatu du, beheitik gorako sozialismo bat; eta hortarako, sozialismo horren aintzindaria dana txalotu du: Tito, alegia.

Komunista Alderdiaren «zientzia-ko-sozialismo» aren kontra, «Sozia-lismo Bakararen» kontra, marxis-mo-leninismo ortodoxoaren kontra, ebanjelio gorrien dogmakierien kontra, gizonaren zerbitzutan jarri behar dan sozialismo bat eskatu du; eta «Gora gizatar-sozialismoa» oi-hukatu du goratik.

Politika-hirukote hori sozialista as-ko onartuko luteke. Fanatiko ez diran guziek eskerki.

Ludvik Vaculik'ekin batera hau esan du Bratislava'ko garteriak: «Gauzo asko dakigu gaur sozialis-moa ER EZ DAN...»

LARRESORO.

Zeruko Argia

Zuzendaria:
ANTONIO ITURRIA
ASTIAZARAN

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goiko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:
Oquendo, 22. Telf. 26666

ARPIDE-SARIA:
Urtekoa 190 Pta.
Atzerrian 265
Aldez artu nai bada, galdetu.

BAR - RESTAURANT


AURRERA

DONOSTIAN ZURE JATETXE BAKARRA

Urbleta kaleko 12'an
Urrut.: 12578 - 11528

DONOSTIAN

SIGMA



Elgoibar

Kontuatuak gaudе aspaldi Erriko ta erbesteko, Oso Itxua bear du batek Au ondo ez ikusteko.

Ekzon-berriak bear dutena Bizimoduан asteko, «Sigma» makina josteko. Etxe-bizitza egokia ta